

■ **Dantzaren egoera kritikatu izan duzu behin edo behin. Kexu zara dantzari eta dantzariei ematen zaien tratuaz.**

Bai, egoeraz kexu naiz, baina ez nuke nahi kexati ospea hartu. Egoerei konponbidea bilatzea gustatzen zait. Baina ez da normala. Esaterako, lau urte Espainiako Estatutik kanpo eman eta gero, hara bueltatu nintzen dantza egitera, eta ordainsaririk gabe lan egin behar izan nuen. Ezin nuen atzera egin, baina ez zait logikoa iruditzen. Gero, kanpora zoaz eta jendeak badaki *cachet* bat duzula, eta errespetuz jokatzan dute.

■ **Non dago arazoa orduan; antolakuntzan ala ikusleengan?**

Ikusleengan inoiz ez. Antolakuntzan esango nuke nik. Ez dute ezagutzarik. Egia da balleta orain gutxi heldu dela, baina garaia da ikasten hasteko, eta gauzak bizkorrago gartzan hasteko.

■ **Kursaala eta Euskalduna daude orain.**

Bai, baina antzoki asko daude. Ontzi asko ditugu, baina bete egin behar dira, egoki bete, eta, hala, dan-

tzan egin nahi duen jendeari lagun diezaiokegu.

■ **Zure konpainia eratu nahi duzula esana duzu.**

Jasotzen ari naizen esperientzia horrek guztiak, eta batez ere bidaia-tzen jasotzen duzun horrek irteera bat izan dezala nahiko nuke. Batez ere atzetik datozen horientzat. Izan ere, askotan gurasoek ez diote irtenbiderik ikusten dantzari, eta gazteei zail egiten zaie aurrera egitea. Eta gero, ikusleentzat ere bai.

■ **Non sortuko duzu? Hemen?**

Konpainia eratuko dut, eratzeko asmoa dudalako. Baina uzten didaten lekuan eta aukera eta erraztasun gehien ematen didaten lekuan egingo dut. Beti esan dut goitik jo behar dela apustua, eta gero jaitsiko da, jaitsi behar bada. Baina bai, nire ilusioa hemen egitea izango litzateke.

■ **Etorkizunean pentsatzen duzu? Planik?**

Egunean egunekoa bizi dut. Ez dut planteatu ere egiten gerokoa. Maite dut egiten dudana, eta lana egunero eta etenik gabe egin beharra dago.

bat-batean

■ **Konpainia bat?**

Bolxoi

■ **Janari bat?**

Paella (barrez)

■ **Hiri bat?**

Bilbo

■ **Ilusio bat?**

Zoriontsu izatea

■ **Helburu bat?**

Aurreko bera

■ **Klasikoa ez den beste dantza bat?**

Dena. Dantza maite dut, oro har.

■ **Liburu bat?**

Ergela (Dostoievski)

■ **Film bat?**

Ivan Izgarria (Eissestein)-asko pentsatu ostean.

■ **Momentu bat?**

Ezinezkoa da bat aukeratzea. Zorte handia izan dut, eta momentu on asko ditut.

■ **Behin zera esan zenuen: «Ez gara zoriontsuak perfekzioa bilatzen dugulako». Zuk ez al duzu perfekzioa bilatzen?**

Bai, eta seguraski, horregatik kostatzen zait hainbeste zoriontsu izatea.

■ **Zer sentitzen da agertokian zaudela txalo zaparrada jasotzen duzunean?**

Sentimendu bat da, eta oso zail da sentimenduak azaltzen.

■ **Ospea zer da?**

Ez dakit, ez dut uste ospea lortu dudunik. Etorri bezala joaten den zerbait da. Ez du bestelako garrantzirik. Norberak ematen dion garrantzia du soilik.

■ **Aholkurik baduzu atzetik datozen dantzarientzat?**

Ez zait aholkurik ematea gustatzen. Ematen ditudanean oso hurbileko jendeari izaten da.

ANTZERKIA

Hortzisaurioak ■ Gaur, Villabonan, 20:15etan. Kale antzerkia Hortzmuga taldeak eskainita.

Hombre de Maiz ■ (Artozko gizona), Theatre du Versan-en eskutik. Gaur, eguerdiko 13:00etan Miarritzeko Udal Casinoan.

Frente a frente ■ (parez pare) . Larunbatean (urriak 2), Pedro Osinaga konpainiaren eskutik, Iruñeko Gaiarre antzokian. Bi emanaldi izango dira: lehena 19:30etan eta bigarrena gaueko 22:30etan.

La dama y el cardenal ■ Bihar (ostirala), Elgoibarko Herriko Antzokian, 22:30etan. Txalo taldearen eskutik.

Euskal Herriko itsasoa ■ Larunbatean (urriak 2), Irungo Zabaltze plazan, 12:00etan.

Pastorala ■ Igandean (urriak 3), Urdiñarbeko herrian, 15:00etan.

La Celestina ■ Asteartean (urriak 5), Gasteizko Principal Antzokian. Ordua: 20:30. Atryl produccionesen eskutik.

Bendetta ■ Asteazkenean (urriak 6), Leioako EHU, 12:00etan. Leo Bassiren ikuskizuna. Bendetta / Leo

DANTZA

Antonio Canales ■ Bihar (ostirala), Donostiako Victoria Eugenia Antzokian, 20:00etan.



petti
euskal
yarragh

DENDA
GUZTIETAN
SALGAI

AMETS BAT

TEL. FAX. 945 75 5016